

UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK

HIZKUNTZA EREDU HANDIAK - LARGE LANGUAGE MODELS (1. EDIZIOA)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA:2025-2026

ARLOA:Ikasketa Teknikoak

KREDITUAK:2,00,00 ECTS (*) kreditu

MATRIKULA TASA:270,00 €(Asegurua 4,00 €)

ARDURADUN AKADEMIKOA:Oier Lopez De Lacalle

AURKEZPENA

Hizkuntza naturalaren prozesamenduaren (HP) alorrean gaur egungo aurrerapenak aurrentrenatutako hizkuntza-eredu handiak(HEH) erabiliz egin dira. HEHak artearen egoerako sistemen oinarrian daude HPko hainbat atazetan. Hizkuntzaren ñabardurak ikasteko gaitasun handia erakutsi dute, edozein motatako sailkapen edo sekuentzia-etiketatzeari eraginkorrak direnak. Berriki, testu-kopuru handien atzipenari eta GPUaren paralelizazioan izandako aurrerapenei esker, testua modu oso naturelean sortzeko gai direla erakutsi dute. Bestetik hainbat ataza gauzatzeko argibideak jarraitzeko gaitasuna ere erakusten dute ere. Ikastaro honen helburua hizkuntza-eredu handien modelizazioari, teoriari, egokitzapen moduei, afera etikoei eta beste hainbat alderdiri buruzko oinarriak irakastea da. Alde praktikoan arreta jarriko dugu ere, ikasleek eredu hauekin lan egiteko esperientzia praktikoa lortzeko. Ikastaroa hizkuntza-ereduen definiziotik abiatuko da eta egokitzapen-teknikei (adibidez, testuinguruko ikaskuntza, jaurtiketa gutxikoa, irakaskuntza-ikaskuntza) eta giza lehentasunekin bat egiteko moduei garrantzia emango diogu irakasgaiari zehar. Bestalde, entrenamendu teknika aurreratuak landuko ditugu, hala nola paralelismoa, arkitektura selektiboak eta eskalatze legeak. Alborapena, eredu hauen kezka etikoak ere landuko dira klasean.

ZURE BILA GABILTZA

Hizkuntza Eredu Handien (chatGPT, Gemini) eta hizkuntzaren prozesamendua ulertu eta aplikatu nahi duten ikasle, langile eta ikerlariei zuzendua. Alde praktikoak programatzen jakitea ezinbestekoa ez den arren, Python lengoaiaren ezagutza eskertuko du ikasleak. Unibertsitate aurreko algebra eta kalkulo ezagutzak lagunduko du ikastaroan hobeto sakontzen. Python ikasteko ikastaro onak daude online, programatzaileei zuzendutakoak.



BALDINTZAK

Guztiz beharrezkoa ez izan arren, COLLAB PRO ra inskribatzea gomendatzen dugu GPUko prestazio gehiago lortzeko.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2025/09/29tik 2025/10/4ra

EMATEKO TOKIA: BIRTUALA

HIZKUNTZA: INGELESA

INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: HiTZ zentroa

HELBIDEA: Manuel Lardizabal, 1 - Donostia

TELEFONOA: 943 015 918

POSTA ELEKTRONIKOA: training.hitz@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.